

Belatz (Gernika, 2015). Hasierako hilabeteetan Ibon (gitarra), Endika (baxua) eta Asier (ahotsa eta gitarra) Gautxori ziren. Gero, Belatz etorri zen. Jon Rekalde eta Mikel Malaxetxebarria izan ziren bateriak, baina Pello Arriola egonkortu zen taldean. Lehen kontzertua Bermeoko Kafe Antzokian jo zuten lehiaketa baten harira 2015eko abenduaren 18an. Arratzuko KortuRec estudioan grabatu zuten 2018an "Denboraren esklabu" EP-a. Taldekide eta tresna aldaketak izan ziren, Mikel Conde sartu zen baxuan. Azkue Fundazioak antolatutako Banden Lehiaren 2018ko edizioa irabazi zuten, eta hemen saria, bigarren diskoaren argitalpena.

Belatz taldearen "Hotz egin duen arren" diskoa Urtzi Izak (Enkore, Empty Files) grabatu eta nahasi du Bilboko Rekalde auzoan duen estudioan 2019ko uztail eta abuztua bitartean. Laguntzaileak: Jokin Erkoreka (Haxotz) "7/4" (ahotsa), Aneguria "Besarkatu nazazu" (ahotsa), Alvaro Olaetxea (Enkore) "Hey! Entzun!" (perkusioa eta bateria) eta Sandra Tejero "Gauaren ilunean" (ahotsa).

Belatz taldearen bigarren diskoaren izenburua da "Hotz egin duen arren", eta gernikarrek osatu duten rockak poparen astindu alai eta erakargarriak ditu. Belatz taldeak rocka egiteko erabilitako ore amak kolore, erritmo, doinu eta zapora asko ditu. Belatz oratzaile trebea da, rocka esku askotan utzi du: poparen erraztasunean, grunge leunenaren ukituetan, rock gogorraren atzaparretan, elektronikaren tantetan, baladaren gozotasunean, rock trinkoaren ziztadetan, rock amultsuaren besoetan. Hori guztia da Belatz, eta argazkia argiagoa egiteko, hemen beste adibideak: batzuetan AC/DC, edo Muse, edo Gatibu, edo The Police, edo Nirvana, edo U2, baina beti Belatz. Euskara batuan eta beste askotan Gernikako bizkaieran abestu du Belatz taldeak. Rock erakargarria, hamaika rock osagairekin egindako ogi samurra.

### 7/4

Transmititu nahi duguna da bakoitzak bizitzan egin dezala egin nahi duena, norberaren ametsak baztertu gabe. Gitarraren riff erakargarri baten antza zeukan zerbait aurkitu genuen, baina ez genekien nola zehaztu, eta azkenean izenburua ematen dion 7/4 konpaseko lehenengo estrofako riff hori irten zen. Abestiak daukan hasiera berezi hori Muse eta U2 taldeen inspirazioaz sortua dela esan daiteke. Lehenengo estrofa zertxobait iluna da, eta leloaren ostean bigarren estrofa indartsuagoa bat dator, abestiaren energia goraka eramanez, bukaera oldarkor batekin itxiz. Abesti zuzena da.

### BARNEKO ZARATAK

Estudiora ohiko rock bat eraman genuen abestia, eta bertan Urtzi Iza produktoreak ideia berri batzuk eman zizkigun erritmo bizi eta dantzagarriago lortzeko, gaur egungo rock modernorantz lerrotatuz. Abestiak barruan duzun gogo guztia beldurrik gabe eta indarrez ateratzeko dio, "abestu gogor, ahotsa urratu arte".

### HOTZ, HOTZ

Diskoari izenburua jartzeko erabili dugun letra du. Gauza eta mementu txar asko pasatu diren arren beti zutik, gogor eta gogoz mantentzeko asmoa daukagu. Rock indartsu eta amorratu bat islatu nahi izan dugu, gure abesti gogorrenetako bat sortuz, ahotsak edertasuna alde batera utzi eta aipatutako amorrua bilatuz. Eskala eta armonia aldetik pop-rocka da eta, une batean, metaletik zertxobait hartu dugu, gogortasun horren bila.

### BESARKATU NAZAZU

Abestiaren zati instrumentala egin genuen lehenbizi, hau entzun eta gero, zerbait erromantikoa edo maitasun istorio bat etorri zitzaigun burura. maitasun platoniko istorio bat da lehen pertsonan abestia. Hasierako riffak Nirvanaren abesti suabeen atmosfera du eta gitarrak melodian du oinarria. Aneguriak abestutako rap zati bat sartu genuen.

### SURIKATOAK

Proiektu bat aurrera atera nahi denean eta hori lortzen denean, batzuek ez dute izango gustuko emaitza eta beste batzuek bai. Baina sarritan, badaude kritikatu baino ez dutenak egiten, guk horiei "surikato" deitzen diegu. Surikatoei umore puntu txiki batez zuzendutako abestia da. Bizkaieraz abesturik dago. Musika aldetik pop-rock alai batera jo dugu, eta estrofetan bi gitarren joko dibertigarri eta pikaroa bilatu dugu.

### HEY! ENTZUN!

Estudioan atera zitzaigun riff batean du funtsa, gero erritmo funky eta ukitu elektroniko bat erantsi genion. Ahotsei garrantzi handiena eman diogun abestia izan daiteke. Ideia txiki horretatik sortu den doinua da "Hey! Entzun!", emaitza dantzatzera bultzatzen zaituen erritmo dibertigarria da.

### HEMEN GAUDE

Ez genuen diskoan sartzeko asmorik. Baina kontzertuetan jende askori gustatzen zaiola konturatu ginen. Abestiak hasieratik ez du buelta askorik izan. AC/DC bezalako taldeetan oinarrituta dago. Mezua da bizitza alaitasunez ospatzea, eta arazorik izanez gero, ez arduratzeko. Musika jarri, kezka eta ardurak ahaztu eta bizitzaz disfrutatzeke dagoela gogoratu.

### GAUAREN ILUNEAN

Diskoko balada. Gitarra akorde batzuk atera eta gero, arratsalde batean Gernikako Europa parkean batu, letra idatzita, melodia bertan atera eta gustatu zitzaigun. Abestiaren doinu goxoak hasieratik harrapatuta, gure maitasun guztiarekin osatu genuen. Bakoitzak nahi bezala interpretatzeko aukera zabalik utzi dugu letra eta bakoitzak berea egin dezala abestia.

Pello Arriola: bateria  
Mikel Conde: baxua  
Ibon Bilbao: gitarra  
Asier Zabala: ahotsa, koruak  
Endika Elizaga: gitarra, koruak

